

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lourdes Ormazabal Garmendia

*Zumarraga,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea



Biografia



Eitzan (Zumarragako auzoa) jaio zen 1943. urtean. Bost senidetan, neska bakarra eta zaharrena da Lourdes. Zumea lantzen zuten gurasoek. Bizilekuan bertan egiten zuten prozesu osoa: zumea egosi eta zuritzetik, saskiak, sehaskak, besaulkiak, etab. ekoiztera. Udan, eskolarik ez zegoenean, aritzen zen Lourdes ere zumea zuritzen. Ikasketak amaitu eta Eitzako okindegi batean urte gutxi batzuk pasa zituen lanean. Zumarragako Kooperatiban egin du lan ondoren.

Zintak

ZMG-047

- **Proiektua:** Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Data:** 2014-01-19
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Zumearen prozesua

- **Erref:** ZMG-047/003
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Zumearen prozesua eta sasoiak deskribatzen ditu. Udaberrian moztu, lehortzen</p>

2. Zumea zuritzea

- **Erref:** ZMG-047/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Emakume asko ibiltzen zen zumea zurrizko lanetan. Zume sorta bakoitzagatik txartel bat ematen zieten eta aste amaieran, txartel bakoitzagatik hiru pezeta jasotzen zituzten ordainetan. Nahiko prozesu erraza da; azalpenak ematen ditu.</p>

3. Zume kolore desberdinak lortzeko prozesuak

- **Erref:** ZMG-047/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:07:44. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Zume kolore desberdinak lortzeko nola egiten zen kontatzen du.</p>

4. Zumearekin egindako produktuak

- **Erref:** ZMG-047/008
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Saskiak, arrantzarako otarreak, sehaskak, aulkiak, besaulkiak etab. egiten zituzten zumearekin. Denda txiki bat zuten Zumarragako plazaren aldamenean</p>

5. Laranjak ekarri eta zumea eraman

- **Erref:** ZMG-047/011
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Zumea Balentziara saltzen zen. Laranjaz kargatuta etortzen ziren kamioiak aprobetxatzen ziren saldutako zumea garraiatzeko. Plastikoa iritsi zenean utzi zion aitak zumea kanpora saltzeari.</p>

6. Emakume asko aritzen zen zumegintzan

- **Erref:** ZMG-047/012
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:16:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Lantegiko antolamenduaz ari da: bakoitzak lan konkretu bat egiten zuen. Emakumezko asko aritzen zen lanean</p>

7. Zumearen azalaren erabilerak

- **Erref:** ZMG-047/014
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Zumearen azalarekin jolas egiten zuten haurrek. Eskarolak lotzeko ere erabiltzen zen eta baita San Joan eguneko sua pizteko ere</p>

8. Opor garaian haurrak zumategira

- **Erref:** ZMG-047/016
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:19:18. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Lana egiteagatik eskolarik ez zuten sekula laga. Uda garaian egoten zen lan gehien eta, oporretan zeudenez, lanerako libre zeuden senideak.</p>

9. Zumarragako beste zumategiak

- **Erref:** ZMG-047/018
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:20:57. **Bukatu:** 00:23:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

<p>Zumarragan baziren zumea lantzen zuten beste hainbat lantegi ere. Hauek izendatzen ditu. Rufino Mendizabalen zumategia erre zeneko eguna ere gogoan du.</p>

10. Zumategiko lanerako baldintzak

- **Erref:** ZMG-047/019

- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Ez zen lan arriskutsua. Langileen baldintzei buruz ari da. Zumarragako merkatua igandez egiten zenez, denda zabalik izaten zuten.</p>

11. Zumarragako merkataritza

- **Erref:** ZMG-047/020
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Zumarragako merkataritzaz ari da, zenbat denda eta negozio zeuden errepasatzen du.</p>

12. Kapritxozko gauzak kanpotik

- **Erref:** ZMG-047/023
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:33:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Zumarragan denetik erosi zitekeen arren, kapritxozko gauzak kanpotik ekartzen zituzten. Zumarragan zeuden beste hainbat denda aipatzen ditu.</p>

13. Euskarari buruz

- **Erref:** ZMG-047/025
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:39:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Ikasketa garaiaz ari da. Irakasle desberdinak gogoan ditu. Erdaraz izaten ziren eskolak. Familia euskalduna izan arren, ondo moldatu zen erdaraz. Zorionez, euskarari eustea lortu zuten sendian eta harro dago.</p>

14. Etxerako izan ordeaz, lanera

- **Erref:** ZMG-047/026
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:39:06. **Bukatu:** 00:41:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>15 urterekin eskolak amaitu zituenean, okindegian hasi zen lanean nahiz eta neska zaharrena izateagatik "etxerako" behar zuen. Josten ere ikasi zuen</p>

15. Aisialdiko ibilerak

- **Erref:** ZMG-047/027
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:41:38. **Bukatu:** 00:44:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>12 urte zituela jaio zen anaia gazteena beraz, jolaserako denbora asko ez zuen izan. Aisialdian zer egiten zuten kontatzen du.</p>

16. Lehengo aldiz oporretan 21 urterekin Gorbeira

- **Erref:** ZMG-047/029
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:45:49. **Bukatu:** 00:47:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Oporretara joan zen lehen aldian 21 urte zituen. Gorbeira joan ziren kanpin-denda eta guzti. Iritsi arteko komeriak kontatzen ditu</p>

17. Pagoetako antzerki taldea

- **Erref:** ZMG-047/030
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:50:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Pagoeta auzoan zegoen antzerki talde bateko kide zen. Auzo horretan, Ikastolaren inguruan, giroa euskaldunagoa zela kontatzen du. Inguruko herrietara ere joan izan ziren antzezlanak egitera</p>

18. Zumarraga eta Urretxuko zinemak

- **Erref:** ZMG-047/031
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:50:26. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Hiru zinema zeuden Zumarragan, elizaren inguruan guztiak. Urretxun ere bazen eta bertan botatzen zituzten hiru erronborekin katalogatutako pelikula asko. Honekin lotutako pasadizoa kontatzen du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com